



Arartekoaren 2023R-930-23 Ebazpena, 2023ko abenduaren 11koa. Honen bidez, Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari gomendatzen dio har ditzala beharrezkoak diren neurriak beren ondorengoan zaintza partekatua egikaritzen duten bananduek edo dibortzietuek alokairu-araubidean etxebizitza babestuen eskatzaile gisa inskribatzeko aukera izan dezaten.

Aurrekariak

1. Arartekoan herritar batek "Etxebide" Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan bere inskripzioari baja eman izanarekin ados ez zegoelako aurkeztu zuen kexa bat onartu zen izapidetzeko.

Bere idazkian, kexagileak azaldu zuen 2015eko uztailaren 14tik, bi gurasoek beren alaben zaintza eta jagoletza partekatua dutela. Ildo horretatik, jakinarazi zuen judizialki berretsitako hitzarmen arautzailean itundutako araubidea etxea aldika okupatzeko sistema izan zela; hau da, erabaki zuten alabak modu iraunkorrean biziko zirela familia-etxean, eta gurasoek txandakatuko dutela etxebizitzaren erabilera astero.

Era berean, kexagileak jakinarazi zuen etxebizitza babestuaren eskatzaile gisa inskribatuta zegoela 2019az geroztik, eta ez zitzaiola etxebizitzarik esleitzea proposatu.

Merkatu librean etxebizitzarik ez zegoenez, 2022ko urriaren 21ean bere udalerrian erregimen orokorreko babes publikoko etxebizitzak esleitzeko prozedura batean parte hartzeko eskatu zuen. Horretarako, udal ordenantza baten bidez etxebizitza bat esleitzeko interesa zuten pertsonen berariazko erregistroa sortu zen. Hala ere, Alkatetzaren Dekretu bidez, parte-hartzea baztertzea erabaki zuten. Bien bitartean, kexagileak Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren jakinarazpen elektronikoa jaso zuen, eta bertan jakinarazi zitzaion Bizkaiko Etxebizitzako lurralde-ordezkariek etxebizitza babestuaren eskatzaile gisa zuen inskripzioari baja ematea erabaki zuela. Erabilitako argudioaren arabera, ondasun higiezin baten titularkide zela egiaztatu zuten, eta horregatik ez zela behar bezala egiaztatzen etxebizitza behar zuela.

2. Emandako arrazoiarekin ados ez zegoenez, 2023ko urtarrilaren 19an, kexagileak gora jotzeko errekurtoa jarri zuen Etxebizitzako sailburuordearen aurrean.

Idazkian, kexagileak bere egoera azaldu zuen berriro ere, eta adierazi zuen dibortzietuta zegoela eta hitzartutako araubide juridikoa zaintza eta jagoletza partekatua zela.



Horregatik, interesdunak egiaztatutzat jo zuen etxebizitza-premia espezifikoa duela bikotekide ohiari familia-etxebizitza hori okupatzen duen aldietarako.

Nolanahi ere, kexagilea harritu egin zen izena eman zuenetik baja eman zion arte igarotako denborarekin. Izan ere, adierazi zuen hasieratik eman zuela hitzarmen arautzailea berresten zuen epai judiziala, eta Bizkaiko Etxebizitza Lurralde Ordezkaritzak eskura izan zuela dokumentazioa, inskribatzeko baldintzak betetzen ziren baloratzeko. Hain zuzen, kexagileak adierazi zuen etxebizitza babestuaren eskatzaile gisa alta eman ondoren, 2021ean inskripzioa berritu zuela inolako arazorik gabe.

Gainera, kexagilea diskriminatuta sentitzen da, araudiak banantze edo dibortzio kasuetarako kasu zehatz bat aurreikusten baitu, eta banantzeak edo dibortzioak zaintza eta jagoletza partekatua erabakitzen duten kasuak baztertzen baititu.

Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak behar bezala baloratu behar zituen errealitate juridikoak, hala nola zaintza partekatua, etxebizitzaren politika publikoak diseinatzerakoan.

Aurretik azaldutakoa gorabehera, kexagileak azaldu zuen aurkeztutako gora jotzeko errekurtsioak ez zuela erantzunik jaso. Era berean, adierazi zuen bere inskripzioak baja emanda jarraitzen zuela eta ezin zuela babes publikoko etxebizitzaren inongo sustapenetan parte hartu.

3. Azaldutako egitateak ikusita, 2023ko apirilaren 17an Arartekoak hasierako laguntza-eskaera igorri zion Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari.

Idazkian, Arartekoak kexagileak deskribatutako egoeraren berri eman zuen, eta txosten bat bidaltzeko eskatu zuen, Bizkaiko Etxebizitzako lurralde-ordezkariek etxebizitza babestuaren eskatzaile gisa egindako inskripzioari baja emateko arazoak azalduko zituen.

Era berean, Arartekoak 2023ko urtarrilaren 19an jarritako gora jotzeko errekurtsioaren tramitazio egoerari buruzko informazioa eskatu zuen.

Era berean, informazioa eskatu zuen Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzek etxebizitza babestuaren eskatzaile gisa izena eman nahi zuten pertsonen zaintza eta jagoletza partekatuko erregimen bat adosten duten kasuetan erabiltzen zuten tratamendu juridikoari buruz.

Azkenik, Arartekoak gogoeta batzuk helarazi zizkion sailburuari. Horiek ez errepikatzearren, geroago azalduko dira.

4. Egindako informazio-eskaerari erantzunez, 2023ko maiatzaren 9an erakunde honetako erregistroan sartu zen Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza,



Etxebizitza eta Garraio sailburuaren kabinete-zuzendariaren erantzuna, eta Bizkaiko Etxebizitzako lurralde-ordezkariek egindako txostena erantsi zitzaion.

Laburbilduz, bidalitako txostenak berretsi egin zuen kexagilearen inskripzioari baja emateko erabakia. Arrazoa honako hau izan zen:

- *"Etxebizitza-premiaren baldintza gerora ez betetzea."*

Gainera, bidalitako erantzunarekin batera Etxebizitza sailburuordearen 2023ko apirilaren 24ko ebazpena ere jaso zen. Ebazpen horrek aurkeztutako gora jotzeko errekurtsioa ezetsi zuen eta "Etxebide" Etxebizitza Babestuaren Eskatzaileen Erregistroan baja eman zela berretsi zuen. Zentzu horretan, ebazpenean erabilitako motibazioaren arabera, kexagileak ez zuen betetzen etxebizitzarik ez izatearen baldintza eta, beraz, ezinezkoa zen *"aplicar el requisito de tener necesidad de vivienda dado que el uso de la vivienda no ha sido asignado judicialmente al ex cónyuge de la recurrente."*

Hala ere, etxebizitzaren lurralde-ordezkaritzek kasu zehatz horiei ematen zieten tratamendu juridikoari dagokionez, bidalitako txostenak honako hau besterik ez zuen adierazi: *"la normativa debe adaptarse, evidentemente, a la realidad social a la que debe ser aplicada."*

Arrazoi hori dela eta, Arartekoak berriz ere eskatu zuen Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren laguntza 2023ko maiatzaren 30ean.

Informazio-eskaera berri horretan, Arartekoak berriz adierazi zuen jakin nahi zuela zein tratamendu juridiko erabiltzen duten etxebizitzaren lurralde-ordezkaritzek etxebizitza babestuen eskatzaileen erregistroa kudeatzeko, eskatzaileek zaintza eta jagoletza partekatuko erregimena hitzartu dutela egiaztatzen dutenean.

5. Bigarren lankidetzeta-eskaera horri erantzunez, 2023ko uztailaren 13an erakunde honetako erregistroan sartu zen Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko sailburuaren kabinete-zuzendariaren erantzuna.

Laburbilduz, txostenak Arartekoari hau jakinarazi dio:

"Etxebizitza babestuaren eskatzaile gisa izen eman nahi duten pertsonen seme-alaba adingabeen zaintza- eta jagoletza- araubideak ez die tratamendu juridiko berezirik ematen etxebizitza babestuaren eskatzaile gisa izena eman nahi duten pertsoneri."

(...)Etxebizitza-premiaren baldintzaren salbuespenak beste eskontidea banantze- edo dibortzio-prozesu baten edo izatezko bikoteen iraungitze-prozesu baten ondoren familia -bizileku gisa judizialki esleitzeari egiten dio erreferentzia."





(...)

Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzek eta Etxebizitza Sailburuordetza osoak etxebizitzaren erabilera eskusiboaren esleipen gisa interpretatzen dute salbuespen hori beste ezkontide batek edo izatezko bikotekideak”.

Era berean, kexagileak etxebizitza babestuaren eskatzaile gisa 2019az geroztik duen altari dagokionez, erantzun-txostenak honako hau dio:

“Alokairuan izena emateko azken eskaera hori baietsi egin zen, baina ez dakigu zergatik, Soilik pentsa dezakegu izapidetzean akats bat egin zela(...)

2021eko ekainaren 29an, baja eman zitzaion inskripzioari, inskripzioa ez berritzeagatik, baina egun berean idazki bat aurkeztu zuen, berritzeko borondatea adierazteko, eta Bizkaiko Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritza berriro aktibatu zuen, 2021eko ekainaren 30ean jakinarazita.

2021eko ekainaren 30ean erreklamaziogileak sarbide-araubidea aldatzea eskatu zuen eresketa-erregimenera aldatuta. Egun horretan bertan jaso zuen baiespenez ebazpena.

Espedientea berrikusi ondoren, familia-etxebizitzaren titulartasuna hauteman zen. 2023ko urtarrilaren 9an, inskripzioan baja ematea erabaki zen.”

6. Hortaz, egitate eta zuzenbide oinarri nahikoak daudela uste denez, honako gogoeta hauek egin dira:

Gogoetak

1. Duela hamarkada batzuetatik, bai 1948ko abenduaren 10eko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak (25.1 artikulua), bai 1966ko abenduaren 16ko Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Itunak (11.1 artikulua), bai Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunak (34.3 artikulua), bai eta Europako Gutun Sozialak berak (31. artikulua) ere, etxebizitzak alderdi soziala duela azpimarratu izan dute, pertsonen eta beren familien bizi baldintzak hobetzen dituelako.

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak behin eta berriz agerian utzi du herri agintariek premiaz jardun behar dutela dagozkien eskumen eremuetan, ohiko etxebizitza izateari eta erabiltzeari loturiko oinarrizko eskubideak bermatzeko¹.

¹ **Europar Batasuneko Justizia Auzitegia.** Besteak beste, 2013ko martxoaren 14ko epaia (C-415/11) eta 2016ko abenduaren 21eko epaia (Sala Nagusia; gai metatuak: C-154/2015, C-307/2015 eta C-308/2015).



2. Barne mailan, etxebizitza gaietan eskumena duten botere publiko guztien jardunari buruzko agindua edo gidalerroa Espainiako Konstituzioaren 47. artikuluan jasota dago. Hain zuzen ere, mandatu konstituzional horrek administrazio publikoak behartzen ditu, maila desberdinetan, beharrezko baldintzak sustatzera eta etxebizitza duin eta egoki bat gozatzeko eskubidea behar bezala gauzatzeko beharrezkoak diren arauak ezartzera; zehazki, lurzorua erabilera arautzera, espekulazioa ekiditeko interes orokorraren arabera.

Laburbilduz, arau konstituzional honek bizilekua behar duten herritarren posizio juridikoa bermatzen du.

Horrekin guztiarekin, Espainiako Konstituzioaren 148.1 artikulua 3. apartatuan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuari buruzko abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 10.31 artikuluan xedatzen den eskumen banaketaren arabera, etxebizitza arloko eskumen osoa Euskal Autonomia Erkidegoak (aurrerantzean, EAE) dauka.

3. Hain zuzen, babes publikoko etxebizitza bat legez okupatu ahal izateko nahitaez eman behar da izena "Etxebide" Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan.

Ildo horretan, Etxebizitzari buruzko Legeak (ekainaren 18ko 3/2015) 13. artikulua ezartzen du Etxebizitza Babestuen eta Zuzkidura Bizitokiaren Eskatzaileen Erregistroa sortuko dela, eta horrek ordeztuko duela edo, hala badagokio, jarraipena emango diola aurretik zegoen administrazio-erregistroari. Erregistro horren helburua izango da etxebizitza babestuen eskatzaileak ezagutzea; halaber, babes publikoko etxebizitzaren esleipena kudeatzeko eta kontrolatzeko tresna izango da.

Bien bitartean, arauko garapenik ezean, "Etxebide" Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroa izango da, zeina Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Aginduan (etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoan) (aurrerantzean, 2012ko urriaren 15eko Agindua) jasotzen diren eskakizunen arabera eratu baita, etxebizitza babestuen eskatzaileak kudeatu eta kontrolatzeko erregistroa, bat etorrita dagokion Etxebizitza lurralde-ordezkaritari esleitutako ahalekin².

4. Testuinguru horretan, babes publikoko etxebizitza bat eskuratzeko oinarriko baldintzetako bat, martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuaren, babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzorua arloko finantza-neurriei buruzkoaren, 16. artikuluaekin bat eginez (aurrerantzean, 39/2008 Dekretua), "etxebizitza-beharra" egiaztatzea da.

² **Lehendakaria.** Urtarrilaren 19ko 11/2021 Dekretua. Horren bidez ezartzen da Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala. 17.1.r) artikulua. Eskuragarri hemen: 2021eko urtarrilaren 29ko EHAA, 21. zk..

Azaldutakoarekin bat etorriz, 39/2008 Dekretuaren 17. artikulua, etxebizitza bat okupatzeko eskubide subjektiboari buruzko urriaren 10eko 147/2023 Dekretuaren³ Azken Xedapenetako Lehenak egindako aldaketaren ondoren, uste du etxebizitza-beharrak lotura zuzena duela unitatea osatzen duten kideen jabetza-gabezia, jabetza soila, azalera-eskubidea edo gozamen-eskubidea egiaztatzearekin.

Hala ere, 17. artikulua, 5. paragrafoan, zehazten duenez, etxebizitza-arloko eskumenak dituen sailburuaren agindu bidez, salbuespenak ezarri eta garatu ahal izango dira arestian aipatutako etxebizitza-beharra egiaztatzeko.

5. Gaur egun, Urriaren 10eko 147/2023 Dekretuak, etxebizitza bat okupatzeko eskubide subjektiboari buruzkoak, egindako arau-aldaketaren ondoren, salbuespen horiek 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 9 bis artikulua arautzen ditu.

Hain zuzen ere, etxebizitza baten jabe den pertsona batek ohiko bizileku iraunkorra eratzen edo eratzen badu, etxebizitza babestu baten esleipendun izan ahal izateko, kontuan hartu behar da pertsona horren etxebizitzarekin hau gertatu den: *"adjudicada al otro cónyuge o miembro de la pareja por sentencia judicial firme, convenio regulador aprobado por sentencia judicial firme o escritura pública, en caso de separación o divorcio notarial"*.

Beraz, arauak ezartzen du, bikoteak hausteko prozesuetan, familia-etxebizitza esleitzen ez zaion ezkontide jabeak etxebizitza-premia egiaztatua duela, Etxebizitza Babestuaren Eskatzaileen Erregistroan sartzeko eta, hala badagokio, babes publikoko etxebizitza baten onuradun izateko.

6. Espedientean dagoen dokumentazioan, Arartekoak egiaztatu du kexagileak hitzarmen erregulatu bat duela sinatuta, eta hitzarmen hori judizialki berretsi zela 2015eko uztailaren 14an. Hitzarmen horretan, egiaztatzen da alaba adingabeen zaintza eta jagoletza partekatua. Horrela, familiaren etxearen erabilerari dagokionez, hitzarmen horrek honako hau zehazten du:

- *"El uso y disfrute de la vivienda (...) se atribuye a (...) las hijas menores de ambos progenitores hasta que (...) alcance la edad de 23 años.*

(...)

Las hijas (...) y (...), residirán en el domicilio familiar de forma permanente y los progenitores se irán turnando en el uso de la vivienda, semanalmente. Es decir, se opta por el sistema de casa nido."

Familia-etxebizitzaren erabilera txandaka esleitzeak (bat dator alaben zaintza-aldiekin) esan nahi du urtean gutxienez sei hilabetez kexagilearen bikotekide ohiak

³ **Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila**. Urriaren 10eko 147/2023 Dekretua, etxebizitza bat okupatzeko eskubide subjektiboari buruzkoa. [EHAA](#), 204. zk., 2023ko urriaren 25ekoa.



judizialki esleituta duela familia-etxebizitza gisa kexagilea jabekidea den etxebizitza, eta, beraz, denbora-tarte horretan bete egingo lituzkeela etxebizitzaren beharra egiaztatzeari buruzko eskakizunak, 39/2008 Dekretuaren 16. artikuluan eta 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 9 bis artikuluan azaldutakoaren arabera, babes publikoko etxebizitza bat alokairu-araubidean baliatu ahal izateko.

Alderantziz, senar ohiak etxebizitza behar izateko baldintza ere beteko luke, sei hilabetez kexagileari dagokiolako jabekidea den familia-etxebizitza erabiltzea.

Azken finean, Arartekoaren iritziz, arauaren helburua kontuan hartzen duen interpretazio batek, adierazi den bezala, banantze- edo dibortzio-kasuetan etxebizitzarik ez izatearen baldintzaren salbuespenak arautzen dituenak, onartu egin beharko luke etxebizitza babestu bat alokairu-araubidean eskuratzeko aukera, judizialki familia-etxebizitzaren gozamina esleituta duten pertsona bananduei edo dibortziatei.

7. Kontu horri dagokionez, Arartekoak bere iritzia eman zuen martxoaren 19ko 2014R-1363-12 Ebazpenean⁴.

Zehazki, Arartekoak orduko Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatu zion beharrezkoa zela finkatutako araubidea zaintza partekatua zen kasuak aztertzea, eta banandutako edo dibortziateko pertsona horiek alokairuko etxebizitza babestu bat eskuratu ahal izateko beharrezko neurriak arbitratzea.

2005. urtean antolamendu juridikoan zaintza eta jagoletza partekatua modalitatea gaineratu zenetik, handituz joan da banandutako edo dibortziateko bikoteen artean eta iritzi asko agertzen dira bikotekideetako bati zaintza eskusiboa eskaintzen zaionean, euren ustez, horren bidez adingabearen interes gorena modu egokiagoan bermatzen baita.

Hori dela eta, Arartekoak 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 9.1 b) artikulua interpretazio zabala proposatu zuen, zaintza partekatua duten eta familia-etxebizitza txandaka erabiltzen duten bikotekideek etxebizitza babestu bat eskuratu ahal izateko, erabilera hori bikoteko beste kideari dagokion aldetan.

8. Hala eta guztiz ere, etxebizitzaren arloko eskumenak dituen sailak orain arte egin duen interpretazioa haxe izan da: seme-alaba komunaren zaintza partekatzen duten banandutako edo dibortziateko bikoteetako kideei etxebizitza horietarako sarbidea galaraztea. Izan ere, bikote horiek, txandaka, etxebizitza komunaren erabilera ere izaten dute, epailearen ustez, horrek aukera emango baitie seme-

ebazpena, 2014ko martxoaren 19koa.. Horren bidez Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio beharrezko neurriak har ditzala beren ondorengoaren zaintza partekatua duten bereizitako eta banandutako pertsonen babes ofizialeko etxebizitza bat txandaka gozatzeko aukera izan dezaten alokairu-araubidean.. Eskuragarri hemen: www.ararteko.eus



alabekiko eskubideak erabiltzeko eta betebeharrak betetzeko, seme-alabentzat onuragarriagoa izango delakoan.

Arartekoaren iritziz, horrek suposatzen du pertsona talde bat dagoela, ondasun higiezin baten jabeak izanik, etxebizitza beharra behar bezala frogatzen duena, baina egungo araudiak horri ez diola behar bezala erantzuten.

Are gehiago, Arartekoak egiaztatu duenez, epe jakin batzuetan etxea aldika okupatzeko sistema gero eta gehiago erabiltzen da. Hain zuzen ere, 2023ko otsailaren 3an argitaratutako datuen arabera (2021. urteko ezkontza-hausteei buruzkoak), Euskal Estatistika Erakundeak ondorioztatzen du kasuen % 50,8an gurasoek zaintza partekatua adostu zutela⁵.

9. Horregatik guztiagatik, Arartekoaren ustez, etxebizitza babestuen eskatzaileen erregistrarako sarbidea arautzen duen araudia egungo errealitateetara egokitu behar da, eta, beraz, beharrezkoa da Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak irtenbide bat ematea, zaintza partekatua duten eta familia-etxebizitza txandaka erabiltzen duten bikoteetako kideek babes publikoko etxebizitza bat eskuratzeko aukera izan dezaten, horren berariazko beharra egiaztatzean.

Doikuntza hori egin ezean, bereizkeriazko tratua izango litzateke bikoteentzat eta, banandu edo dibortziatu ondoren, ondorengoak batera zaindu eta jagotea aukeratzen duten senar-emazteentzat, baldin eta, banandu edo dibortziatu ondoren, familia-etxea partekatzen badute.

Hain zuzen ere, gai horri dagokionez, Arartekoak azpimarratzen du uztailearen 12ko 15/2022 Legeak, etxebizitzaren arloko tratu- eta diskriminazio-berdintasunerako lege integralak, 3 k) artikuluan ezartzen duela bere aplikazio-eremu objektiboa honako hau dela:

- *"Acceso, oferta y suministro de bienes y servicios a disposición del público, incluida la vivienda."*

Hain zuzen, 20. artikulua hau xedatzen du berariaz:

- *"Las administraciones públicas, en el ámbito de sus competencias, garantizarán que las políticas de urbanismo y vivienda respeten el derecho a la igualdad de trato y prevengan la discriminación, incluida la segregación residencial, y cualquier forma de exclusión por cualquiera de las causas previstas en la presente ley."*

10. Azkenik, Arartekoaren ustez, hobetzeko tartea dago kexagilearen, etxebizitza babestuaren eskatzaile gisa, espedientea izapidetzean.

⁵ Eustat. www.eustat.eus



Ez dirudi administrazio onaren printzipioarekin bat datorrenik Bizkaiko Etxebizitzaren Lurralde Ordezkaritzak inskripzio baten alta mantendu izana 2019tik 2023ra bitartean, baldin eta, adierazi duenez, hasieratik ez badu egiaztatu etxebizitza beharra.

Arartekoak egiaztatu du kexagileak hasieratik eman zuela 2015eko uztailaren 14ko epaia. Epai horretan epai bidez berretsi zen elkarren arteko adostasunez hartutako erabakia, eta berariaz jaso zen itundutako erregimena zaintza partekatua zela, etxe aldika okupatzeko sistemarekin.

Kexagileak erregimen orokorreko babes publikoko etxebizitzak esleitzeko prozeduran parte hartzeko hartu zuen erabakiaren ondorioz, Bizkaiko Etxebizitzako lurralde-ordezkariek inskripzioa bertan behera uztea erabaki zuen.

Hori dela eta, Arartekoak ohartarazten du inskripzio bati alta ematerakoan ekarritako dokumentazioaren balorazioan egindako akatsek kalte larriak eragin ditzaketela beste eskubide batzuk onartzeko orduan, hala nola diru-sarrerak bermatzeko errenta, etxebizitzako prestazio osagarria edo etxebizitzaren prestazio ekonomikoa.

Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, Arartekoak gomendio hau egiten du:

GOMENDIOA

Azaldutakoaren arabera, Arartekoak Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari gomendatzen dio har ditzala beharrezkoak diren neurriak beren ondorengo zaintza partekatua egikaritzen duten bananduek edo dibortziatuek alokairu-araubidean etxebizitza babestuen eskatzaile gisa inskribatzeko aukera izan dezaten.

Edonola ere, Arartekoak gogorarazi du beharrezkoa dela Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila arduraz jokatzeko "Etxebide" Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan sartzeko espedienteak izapidetzen, interesdunei kalterik ez eragiteko.